

EDUKIEN LABURPENA

- 1- LEKUALDATZE LEHIAKETA**
- 2- EPE IKASTAROA**
- 3- LAN -LEGEPEKOENTZAT INFORMAZIO BILERAK**
- 4- PRAKTIKETAN DAUDEN IRAKASLEEN INFORMAZIO BILERA**
- 5- 2011.URTEAN JUBILAZIOA ESKATU NAHI DUTENENTZAKO OHARRA**
- 6- ORDEZKAPENAK EGITEKO HAUTAGAIK**

1. Adi! Lekualdatze-lehiaketak: bilerak

2010/2011ko LEKUALDATZE-LEHIAKETAK

- **Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoak eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa.**
 - **Maisu-Maistren Kidegoa.**
 - **Ikuskarien Kidegoa.**

2010eko azaroaren 22an emango dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara 2010eko azaroaren 16ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren hiru agindu, aipatutako kidegoetako funtzionario irakasleen arteko lekualdatze-lehiaketak deitzen dituztenak.

Lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko, irakaslegunea ingurunean dagoen eskaera elektronikoa bete besterik ez da egin beharko eta Interneteko helbide honetatik: <http://www.irakasle.net>, behar diren klabeekin, iritsiko da irakaslegunera.

Ikuskarien lekualdatze-lehiaketaren kasuan, paperez bete beharko da derrigorrean parte hartzeko eskaera.

2010eko azaroaren 25etik abenduaren 14ra bitartekoa, biak barne, izango da eskaerak bete eta merezimenduak justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko epea.

Aipatutako dokumentazioa aurkezteko, Interneteko helbide honetan: <http://www.irakasle.net> -> lekualdatze-lehiaketa> dokumentazioa entregatzeko aldez aurreko hitzordua estekan eskatu beharko da, aldez aurretik, hitzordua. Eskaera azaroaren 22tik aurrera egin ahal izango da.

Prozesu honetan errazago parte hartzeko asmoz, parte hartzeko eskaera on-line grabatzeari buruzko gida bat, baita prozesua behar bezala aurrera eramateko nahi den informazio guztia ere, emango dira Interneteko helbide hauetan argitara: <http://www.irakasle.net> eta <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>

KONTUZ!!! Aurten GUZTIOK merezimenduak justifikatzeko dokumentazioa entregatu beharko dugu epe barnean

Lekualdatze-lehiaketa prozesuari buruz informatzeko, hainbat bilera egingo ditugu karrerako eta praktiketako funtzionarioei zuzenduak.

Bilerak ELAren egoitzetan izango dira ondoren adierazten diren hiri, egun eta orduetan:

- **Bilbo: Azaroak 29, astelehena, 17:30etan.**
- **Gasteiz: Azaroak 30, asteartea, 17:30etan**
- **Donostia: Abenduak 1, asteazkena, 17:30etan.**

OHARRA:

Lekualdatze-lehiaketaren laburpena emailaz bidali behar dugu, beraz e maila aldatu edo emana ez duenak, mesedez ahalik eta azkarren igorri.

2. EPE 2010-2011

Oraindik EHAA n noiz argitaratuko duten ez badakigu ere, eta ondorioz izena emateko epeak ere noiz irekiko diren jakiterik ez dagoenez, 2011. urterako Maisu-Maistren Kidegoan, Bigarren Hezkuntzan, Hizkuntza Eskola Ofizialetan eta Kontserbatorioetan EPE baterako deia egingo omen du Hezkuntza Sailak. Lanpostu-kopuruari eta irakasgaiei buruzko zehaztapenak oraindik ez dauzkagu; horien berri ditugunean igorriko zaizkizue.

Sarbide-sistema aurreko urteetako berbera da. Hortaz, jakingo duzunez, Programazio Didaktiko bat aurkeztea eta defendatzea eta Unitate Didaktiko bat gutxienez aurkeztea eskatuko zaizu.

Jardunaldi-ikastaroa

EPE honetan parte hartuko duten **afiliatuei** programazioa eta unitate didaktikoak egiten laguntzeko eta irizpideak eta aholkuak emateko, jardunaldi-ikastaro bat antolatu dugu, EHuko didaktika eta metodologiako irakasleak diren Jon Bustillok eta Peio Aramendik emango dutena.

Jardunaldi-ikastaro hau EAEko hiru hiriburuetan ELAk dauzkan egoitzetan izango dira, ondoko egutegiaren arabera:

LEKUA	EGUNAK	ORDUTEGIA
Gasteiz	Abenduak 11 (larunbata)	10etatik 14etara
	Abenduak 27 (astelehena)	10etatik 14etara
Donostia	Abenduak 10 (ostirala)	17etatik 20etara
	Abenduak 11 (larunbata)	9etatik 14etara
Bilbo	Abenduak 17 (ostirala)	17etatik 20etara
	Abenduak 18 (larunbata)	9etatik 14etara

Bertan parte hartzeko interesa baduzu, deitu ELA Irakaskuntzara, ikastaroa egin nahi duzun hiriburuaren telefonora.

Temarioak

Idatzizko proba egiteko espezialitate desberdinen gai zerrendak aurreko oposizioko berberak dira.

Ez daukagu espezialitate guztientzako materialik eta ezin izango dugu eskaini temarioen fotokopiarik ere, argitaletxeen materiala delako. Horregatik, interesatzen bazaizu materiala erosi egin beharko duzu.

Ertainetan dagoen espezialitate-kopuru handia kontuan izanda, ez dago argitaletxe bakar bat ere deitutako espezialitate guztientzako materiala eskaintzen duenik.

Hala ere, **CEP argitaletxearekin** (<http://www.editorialcep.com/>) akordio batera iritsi gara eta ELAko afiliatuei **%30eko deskontua** egingo dizue. Euren web orrian ikus ditzakezu zein espezialitaterentzat daukaten materiala.

Eskaera egiteko, nahikoa duzu honekin batera doakizun orria betetzea nahi duzun materiala eskatuz, eta bertan zehazten den fax zenbakira bidaltzea. Materiala etxean jasotakoan ordaindu egingo da.

3- Laboralentzako informazio bilerak

Lan-legepeko irakasle eta hezitzaile zareten horiei, Abenduan zehar antolatuko ditugun hainbat bileretara joateko deialdia luzatuko dizuegu datozen egunetan. Batik bat, ERRELEBO KONTRATOAREN inguruan informazioa luzatuko dizuegu.

Adi egon zuen ikastetxeetan!!!

4- Praktiketari daudenak

Praktika-aldiaren arauketa (EHAA, 2010-11-22). **Data honekin**, zuen praktikak arautzen dituen dekretua argitaratu da. Edozein zalantza edo arazorik baduzue gurekin harremanetan jarri.

5- Jubilazioaren inguruan

2011.urtean jubilatzeak intentzioa duzuenok jarri gurekin harremanetan informazioa eman eta kasu bakoitza aztertu ahal izateko.

6- Ordezkapenak egiteko hautagaiak

ZERRENDETAKO KOKAPENARI BURUZKO KONTSULTA

Asteartetik, azaroak 23, Internet-eko helbide honetan: www.irakasle.net kontsultatu ahal izango da hautagai bakoitzak zerrendetan duen kokapena. [Klikatu hemen](#)

